

Ibai Gomez • Athleticen jokalaria

Aurreko sasoiaren baino askoz gehiago ari da jokatzen Ibai Gomez. Hala ere, ez dago pozik, taldearen egoerak kezkatzen baitu. Granadaren aurkakoa «oso partida garrantzitsua» dela dio.

# «Egoera txarretan ikasten da nola bizi behar diren une gozoak»

Haritz Gallastegi Bilbo

Raul Fernandez (1988) eta Ibai Gomez (1989) dira egun Athleticen lehen taldean dauden bilbotar bakarrak. Bataren eta bestearen egoera guztiz ezberdinak dira, ordea. Atezaina lur jota dago, Marcelo Bielsak argi eta garbi erakutsi baitu ez duela bere jokoa sinesten. Erdilariak, berriz, etengabe egin ditu urratsak lehen taldera igo zutenetik. Hala ere, taldearen egoera txarrak ez dio bere arrakasta behar den moduan gozatzen lagatzen.

**Luze egiten ari al zaizu etenaldia?**  
Luze ez da berba aproposa sentitzen dudana adierazteko. Guk futboleant jokatzea dugu gustuko, eta, gainera, une gogorak ari gara pasatzen. Horregatik ez dugu behar den moduan gozatu etenaldia. Gauza txarretatik ikasi egingen da, eta ziur nago zulotik irtezea garenaren indartsuagoak izango garena.

**Zer ikasten da egoera zailetan?**

Egoera guztietatik ikasten da. Aurreko sasoiaren dena alde izan genuen, sasoi oso ona egin genuen eta asko ikasi genuen. Sasoi hau kontrakoa izaten ari da. Bidea luzea eta gaitza ari da izaten. Emaitzak ez dira onak. Egoera txarretan ikasten da nola bizi behar diren une gozoak. Futboleant sekula ez da jakiten zer gertatuko den, eta oso garrantzitsua da jakitea taldeak nola erantzun dezakeen haizeak kontra jotzen duenean.

**Infernuaz egaztuta lorpenak gehiago baloratuko dituzuela diozu?**

Aurreko denboraldia amaitu zenean, ez genuen behar den moduan baloratu egindako guztia. Azken hilabeteak txarrak izan dira, eta horrek lagundu digu iragan sasoiaren egindakoa merezi duen mailan jartzeko. Egoera onak gehiago gozatzen ikasten lagunduko digu sasoi honetako ibilbide eskasak.

**Atzera begiratu, nola laborbilduko zenuke denboraldi hau.**

Denboraldia oso arraroa ari da izaten. Futbolarekin zerikusirik ez daukaten gauza asko pasa dira.

Hori ez zait batere gustatu. Bestalde, kirol arloaren analisia eginez gero, denetarik izan dugu: partida askotan merezi baino uzta txikiagoa lortu dugu; beste batzuetan, berriz, aurreko sasoiak mailatik oso urrun egon gara... horregatik, orain artekoa arraroa eta, era berean, txarra izan dela esango nuke. Hala ere, oraindik hamar partida falta dira, eta taldeak gora egingo duen esperantza daukat. Ahozapore gozoarekin amaitzea da gure esperantza.

**Ez duzuela sufrituko uste duzu?**

Ezin dut hori baieztatzen. Zuloan gaude, eta hortik ahalik eta azkarren aldentzen ahalegindu behar dugu. Granadaren aurkako partida oso garrantzitsua da hori lortzeko. Nik beti izan dut konfiantza taldearengan, baina orain ezinbesteko baldintza da oinak lurrean izatea.

**«Beti ematen dugu dena. Talde honi ezin zaio aurpegiaratu konpromisorik eza»**

**Granada aipatu duzu. Zuentzat denboraldiko partida dela dirudi.**

Sekulako garrantzia dauka. Granada gure borroka berean dago, eta, horrez gain, aurkari zuzenen arteko lehiak izango ditugu jardunaldi honetan. Beraz, San Mamesen aurkari zuzen baten kontra irabazteak asko emango liguke.

**Badakizue zer dagoen jokoan sasoiaren azken txanpan. Baina ingurua hasi da datorren denboraldian pentsatzen. Taldea indartu dezaketen jokalarien izenak bolo-bolo ari gara ematen han eta hemen.**

Ez dut uste egokia denik. Jarraitzaileen eta jokalarion pentsamendu bakarra dugun egoera zail honetatik irtetea izan behar du. Lehenetsun bakarra izan behar da. Etxeko lanak egindakoan izango dugu denbora datorren sasoiaren gainean berba egiteko. **Taldea ez dabil fin, baina zuk ez daukazu kezkatuko arrazoirik. Aurrerapausoa eman duzu sasoi honetan.**

Futbola talde kirola da, beraz,

naiz eta nire egoera aurreko sasoiaren baino hobea izan, ezin naiz pozik egon. Aurreko sasoiaren askoz gutxiago jokatzen nuen, eta askoz ere gusturago sentitu nintzen.

**Sasoi hasieran hirugarren aukera zinen ezker hegalerako. Iker Muniain eta Isma Lopez zure aurretik zeuden. Egun zu ari zara hasieratik jokatzen.**

Futbolariok jokatzeke eta protagonista izateko egiten dugu lan. Baina ni ezin naiz Muniainekin alderatu. Zorte apur batekin munduko onenetakoa izan daiteke. Helburua guztiok gure onena ematea da.

**Muniain loratu duzu. Ososaso txarra jokatzen ari da. Zer gertatzen zaio?**

Nik konfiantza osoa daukat harrengan. Ez dakit zer gertatzen zaion, baina ni ez nintzateke kezkatuko. Gaztea da, eta urte asko ditu aurretik barruan daukana erakusteko. Futbolari ibilbidean normala da gorabeherak izatea.

**Eta zuk zertan hobetu behar duzu jokatzen jarraitu ahal izateko?**

Arlo guztietan eman behar diot gehiago taldeari. 23 urte ditut, eta asko hobetu beharra daukat.

**Aste honetan areaz kanpoko jaurtiketen estatistiketan gainean jardun gara. Zu taldeko ausartena zara arlo horretan, baina Athleticen bigarren lehoa ez da oso eraginkorra. Taldeak duen gabeziatarako bat da.**

Baliteke, baina taldearen jokatzeke arlo area barrura eramaten gaitu.

**Azken jardunaldietan pubiseko minarekin ari zara jokatzen. Ebakuntza egin gabe osatuko zara?**


Esperantza hori daukat. Ebakuntza gela azken aukera da, baina badakigu nolako den pubalgia. Orain hobeto nago, eta sasoiaren indartsu amaitzea gura dut.

**Denboraldion asko ari gara hitz egiten jokalarien konpromisoaren inguruan. Sarri jarri dugu ezbalan. Zer daukazu esateko?**

Lan saiota eta baita partidetan ere dena ematen duen taldea gara. Talde honi ezin zaio aurpegiaratu konpromisorik eza.

**Min ematen dizue horientzuteak?**

Niri bai. Hala ere, iruzti guztiak errespetatzen ditugu.



LUIS TEJIDO / EFE

## Laburrak

**Iñigo Martinez: «Edozer tarako gai gara»**

**REALA** | Iñigo Martinezek atzo azpimarratu zuen «zailena» gertatzen zaiela, baina «edozer tarako gai» ikusten duela taldea. «Denboraldi ona ari gara egiten, eta goian jarraitu nahi dugu». Espanyolen aurkako partidaz, berriz, esan zuen une «onean» dela eta etxean «sendo» ari dela.

**Agirretxe: «Denboraldia biribiltzea espero dugu»**

**REALA** | Imanol Agirretxek ere azken txanparen «zailtasunaz» ohartarazi zuen atzo. «Ametsa izateak ez du esan nahi erraza izango denik». Hala ere, Realeko aurrelariak «gogotsu eta ilusioz» ikusten du taldea azken txanpari begira. «Bolada ona daramagu, ea luzatzen dugun. Denboraldia biribiltzea espero dugu».

**Muniain: «Inork ulertu ez balite bezala sentitu naiz»**

**ATHLETIC** | Iker Muniainek atzo aitortu zuen denboraldi honetan «noizbait» inork ulertu ez balu bezala sentitu dela, eta haren inguruan esan diren zenbait gauzak «min» egin diotela. «Hori diotenak beti dira gauzak ondo doazenean bakarrik daudenak gurekin. Komunikabideen lana ulertzen dut, baina ezin naiz beti ados egon». Valentziaren aurka eta Espainiako 21 urte azpiko selekzioarekin sartutako golekin «animatzeko» balio izan diotela esan zuen ere.

**3,5 milioi euro Palestinan futbola sustatzeko**

**NAZIOARTEA** | Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) 4,5 milioi dolar (3,5 milioi euro inguru) inbertituko ditu Palestinan, herrialde horretan futbola sustatzeko. Palestinako Futbol Elkartearen egoitza, prestakuntza gune bat eta belar artifizialeko bi zelai eraikitzeak erabiliko dira hori.